

2009/03/18

ALTO-UROLA.-Igartubeiti eta Zumalakarregi museoak irekita mantenduko dira datozen jai egun hauetan

Bihar jai eguna izango da, baina hala ere bai Ezkio-Itsasoko Igartubeiti Baserri Museoa, baita Ormaiztegiko Zumalakarregi ere irekita daude, Gipuzkoa barneko bi museo hauek denboran zehar bidai bat egiteko aukera zabaltzen digutelarik.

Igartubeiti konkretuki, jatorrizko egoeran zaharberritutako eraikina da eta garaiko altzari eta tresneriaz hornitua dago, gure arbasoen bizimodua ulertarazteko asmoz: zer jaten eta edaten zuten, nola janzten ziren, zertan egiten zuten lana...

Interpretazio Zentroak berriz, euskal baserriaren historia, ezaugarriak, erabilera eta bilakaera erakusten dizkigu baliabide expografiko berrienak erabiliz.

Bestalde Zumalakarregi dugu, bertan Karlista eta liberalei buruzko erakusketa bat dagoelarik. XIX. mendeko euskal gizartearen aldaketak, ikusentzunezko, objektu, arma, dokumentu eta abarren bitartez. Honetan, batez ere familiei zuzendutako Lantegi Elkarreragilean gozatu daiteke: janzkerak, puzzleak, buruhauskarriak, komikiteka eta joku elkarreragileekin osatutako kiosko digitala, partehartzaileek XIX. mendeko giroan sar daitezen.

Egun bereziak direnez, bi museoak ikusteko prezio berezi bat dago, 3 euroen truke historian zehar bidai hau egiteko aukera dagoelarik. Bietan bisita gidatuak eskeintzen dira ere, hauek 11:00etan, 12:30etan eta 17:30etan aurrera eramaten direlarik.

Gainera, egun hauetan ere bi tailer didaktiko egongo dira: Zumalakarregin garaiko jolasen maratokia eta Igartubeitin antzerki mutua.

Museokoekin harremanetan jartzeko honako baliabide hauek daude: (943) 72 29 78; igartubeiti@gipuzkoa.net; eta (943) 88 99 00 telefonoa Zumalakarregirako.

Animatu!

M. GALILEA